

Amaika orri eldu dira eta Euskaltzaindiak juradu bat izendatu ondoren, arek 1965 maiatzaren 28-an urrengo au erabaki du:

Lendabiziko saria, bi milla pezeta, Jose Maria Lertxundi "Argiñ"-i ematea asto bati jarri dizkan bertsoakatik. Bigarrena, milla ta bosteun, Jesus Lete "Ibai-erz"-i amabi bertsoekin osatutako orriagatik. Irugarrena, milla, Joxe Mari Ertzilla "Xabaroa"-ri aurtengo estropadai jarritako bertsoakatik. Eta laugarrena, bosteun, Sebastian Salaberria-ri Iturrioz-ko sega-apustuari jarritakoakatik.

Juradua osatu dutenak dira: Juan Maria Lekuona, Fernando Artola "Bordari", Juan San Martin, Antonio Arrue, Aita Antonio Zavala, Jose Maria Sartrategi eta Alfonso Irigoyen.

Aurtengo beste sariketa baten berria zabaldua dago izen berberarekin, au da, Xenpelar izenarekin, eta bertso papelak biartzeko epea urriaren 20-an bukatzen da. Gaia libre izango da eta amar bertso papel inprentatu elduerazi bear dira.

### **DOMINGO AGIRRE ZANAREN OMENEZ LITERATURA SARIKETAK. 1964 ABENDUAREN 20-AN LORE JOKOAK ONDARRUN**

Ondarruko Ayuntamentuak zenbait literatura sariketa jarri zituen Domingo Agirre bertako semea zanaren omenez, batzuk euskeraz eta beste batzuek erderaz. Euskerazkoak Euskaltzaindiari eman zizkioten erabakiak ar zitzan.

Onela egin zan:

Poesia saria: "Bear zaitut laga". Egillea: Antonio Bilbao Monasterio. Juradua: Aita Lino Akesolo, Fernando Artola "Bordari", Juan Maria Lekuona, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyen. Saria: Bizkaiko Diputazioak emandako amar milla pezeta eta lore natural bat.

Teatro saria: "Historia triste bat". Egillea: Salvador Garmendia. Juradua: Iñaki Beobide, Manuel Ziarsolo eta Alfonso Irigoyen. Saria: Ondarruko Kresala teatro taldeak emandako amar milla pezeta.

Marifiel giroko narrazioa: "Amonatxo zaarrak eta ur txakurrak". Egillea: Agustin Zubikaray. Juradua: Manuel Ziarsolo, Jesus Maria Arenaza eta Alfonso Irigoyen. Saria: Ondarruko "Unión Sindical de Armadores de Altura" alkartadeak emandako bost milla eta bosteun pezeta.

Baseri giroko narrazioa: "Arnobarrengo Iñaxio". Egillea: Tene Muxika. Juradua: Manuel Ziarsolo, Jesus Maria Arenaza eta Alfonso Irigoyen. Saria: Bizkaiko Ahorro Kaxak emandako iru milla pezeta.

Domingo Agirre apaiz: "Domingo Agirre-ren eliz-itzaldiak". Egillea: Aita Luis Villasante. Juradua: Manuel Ziarsolo, Jesus Maria Arenaza eta Alfonso Irigoyen. Saria: Ondarruko Santa Maria Parrokiak emandako bi milla pezeta.

Erderazkoak erabaki zituztenak beste alkartade batzuek izan ziran.

Erabaki auek abenduaren 18-an artu ziran eta egun bi geroago Ondarrun lore jokoak egin ziran. Jose Artetxe jauna izan zan izlaria. Poesia saria autoreak berak irakurri zuen. Euskaltzaindiko zenbait egon ziran bertan.